

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure funtsezko elkarteak dendak dira, web gunea produktuz hornitzen lagunduko digutenak, beraiek gabe proiektu honek ez du zentzurik. Izan ere, herriko merkatu edo dendei laguntzea da gure funtsa, eta gure helburua, herriko dendak bizitzen ari diren egoera honi aurre egiten laguntzea da. Hontaz, gure hornitzaieak, herriko dendak, guri produktuak bidali, guk interneten ireki dugun web orri berrian itsatsi produktuak, eta horrela denda horietako bezeroak, internet bidez erosi ahalko dute, horrela, dendak, ez dute galera handirik izango eta COVID-19rekin bizitzen ari garen egoera larri honetatik, ahalik eta ondoen ateratzea lortuko dugu. Bazkideak gu izango gara eta gure soldatak proiektuaren irabazien %10 etik ateraki dira.



•Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Dendak izango dira webgunea hornituko dutenak, baina etekin ekonomikoa aterako dutenak ere eurak izango dira eta oso garrantzitsuak dira guretzako, azken finean gure proiektuaren funtsa eurei laguntzea delako. Esango genuke, hornitzaileak izateaz gain, egitasmo honen xedea direla.